

Deialdia

2013/12/18

“Haragia” filmaren proiektzioa eta Begoña Vicarioren hitzaldia desagertutakoez Bizkaia Aretoan

Memoria(z) tartean proiektukoa da jarduera, Bizkaiko Campuseko programazio kulturalaren barnean

Ostegunean, abenduak 19, 20:00etan, Bizkaia Aretoan (Abandoibarra, 3. Bilbo) “Haragia” film laburra proiektatu ostean, UPV/EHUko irakasle eta pelikulako zuzendari **Begoña Vicariok** hitzaldia emango du desagertutako pertsonen, eta familiaren eta lagunuen egoeraz. Ekintza *Memoria(z) tartean* proiektuaren zati da, Bizkaiko Campuseko Kulturbasque programa kulturalak antolatua.

Sarrera doan izango da.

Begoña Vicariok esan duenez, desagertutako pertsonen bizirik jarraitzen dute ahaide eta lagun maiteen gogoan. Ahaide eta lagun maite horiek desagertutako pertsonaren gorpua ikusi behar dute, agur esaten hasi ahal izateko. “Film honetan, barne-pultsu hori imajinatu nahi izan dut, eta hitza eurei eman nahi izan diet, dauden lekuan daudela”, azaldu du film laburreko zuzendariak.

Kultur jarduera *Memoria(z) tartean* proiektu tematikoan dago sartuta. Euskal Herrira begira dagoen proiektu horrek gogoeta egiten du II Errepublikaren kontra armadak eman zuen estatu-kolpearen ondorioz. 1936. urtetik aurrera, 150.000 pertsona desagertu omen ziren. Orain, berba eginez eta arte-adierazpen moduak erabiliz, gertatutako guztia ikusarazi nahi du giza talde handi batek.

Gehiago jakiteko: @kulturbasque-ren Twitter sare sozialean, [#memoriaztartean](#)